

# B

BARREN

## “Lotsa alde batera laga behar da”

Alina Sanchez,  
salsa irakaslea



# Aurrera egin



Gipuzkoa Foru Aldundia  
Departamentu Foral de Gipuzkoa



 kutxa



**ADEGI**



CONSEJO REGULADOR  
ECONOMICO GIPUZKOA



Diputación Foral  
de San Sebastián



gipuzkoa **aurrera**

Aurrera egin, elkarrekin.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-privatutik elkarlanean ari gara,  
Indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.

## ‘Egunkaria’ libre!

Maiz egiten dut negar, askotan, gehiegitan, agian. Negar egiten dut pozagatik, tristuragatik eta amorrugatik. Denagatik, negar. Baina, gaurkoa negar ezberdina izan da, hiru sentimendurengatik batera egin baitut negar: Joan Mari, Txema, Iñaki, Martxelo, Xabier, Jose Mari, Ainhoa, Mikel, Begoña eta Fernando lagunuen egoerak izugarritzko tristura sentiarazten didalako; euskal herritarrok jasan behar izaten dugun tratamendua lotsagarria delako, penagarria; euskal gizartearen egoerak pena ematen duelako.

*Egunkaria*-ren semea daukagu, aita erail egin zutelako. Nor da hemen terrorista? Hizkuntza bat maitatzea, zabaltzea eta normalizatzea nahi izatea delitua bada, ba bai, arrazoi izango dute, euskaldun guztiok terroristak gara.

Amorrua alde guztietatik estutzen gaituzten eskuen artean egoteak ematen dit, itotzen gaituen sokatik atera ezinik, ezinean. Harrapaturik gaudela eta ospa egiteko aukerarik ez daukagula pentsatzen dut askotan, gehiegitan, agian.

Poza Elgoibarko plazak eman zidan, Donostiako Kursaalak. Argi geratu delako sinesten duen horren alde egiteko prest dagoen jendea badagoela. Egiten dugun hori, apurtxo bat besterik ez bada ere, amamak esaten zuen moduan “pezetaka-pezetaka egiten da milioia”. Eta hain zuzen ere, milioiak behar dituzte, milioi asko diru, milioika laguntza, milioka babes, eta guk, euskaldunok, milioi gutxi

izan arren, asko daukagu emateko.

Horregatik, euskaraz irakurri nahi duten begiok negar egin dute gaur. Hiru sentimenduk bultzatutako negar malkoak bota ditut, hiru koloretako malkoak. Nik negar egin dut, baita aitak ere, eta semeak, espiritu santuak ere bai, beharbada. *Euskaldunon Egunkaria*-ren negar zotina entzuteak negargura ematen baitu. *Egunkaria* libre!



Amaia Gorrotxategi

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:  
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Argi geratu da badagoela jendea sinisten duen horren alde egiteko”

***Egunkaria*-ren  
ELKARTASUN  
EGUNEKO  
BIDEOA  
JARRI DUGU!**



***Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu***

**www.elgoiBARREN.net**




# 2010EKO UDAL AURREKONTUAK 2006KO MAILA BEREAN

Elgoibarko Udalak datorren urteko aurrekontuak onartu ditu, eta krisiaren eraginez behera egingo dute bigarren urtez jarraian. Hortaz, 2010. urtean 14.340.734 euroekin konpondu beharko du Udalak, 2006ko kopuruarekin, gutxi gorabehera. PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien artean lortutako akordioa dela medio onartu dituzte aurrekontuok. Ordezkaritza legala duten gainontzeko alderdiak abstenitu egin dira, Gobernu Taldeko EA barne. Aurrekontua landu dutenek gerrikoa estutzeko sasoia dela narbarmendu dute, eta Udalaren ekonomia saneatuta dagoela. Hori dela eta, datorren urterako ez du lan handirik aurreikusi Udalak, eta aurrekontu murrizpenak ia sail gehienei eragingo die. Datorren urteko aurrekontua 2009rako onartutakoa baino baino, %14,95 txikiagoa izango da. Amaitzen ari garen urte honetarako 16,8 milioi euroko aurrekontua onartu zuen Udalak hasieran, baina behin betiko aurrekontua 26,2 milioi eurokoa izango da azkenean. Aurten burutu gabeko lan batzuk 2010. urteko aurrekontuan sartu gabe gelditu dira oraindik (Herri Eskolako teilatua, Olasoko errotonda eta Ubitarte berriz urbanizatea), eta 2009. urtea likidatzean 4,45 milioi euro gehiago txertatu ahal izango dituztela iragarri dute Ogasun Saileko arduradunek.

## Oier Narbaiza




Aurrekontua 3 zatitan banatzen da:	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala: 14.340.734 euro</li> <li>• San Lazaro Egoitza: 1.386.775 euro</li> <li>• Udal Kirol Patronatua: 1.067.577 euro</li> </ul>
<b>SARRERA AIPAGARRIENAK</b>	
Zuzeneko zergak	2.708.739,21
Transferentzia arruntak	6.753.306,00
Kapitalezko transferentziak	1.402.702
Maileguak	755.893,78
<b>Sarrerak guztira</b>	<b>14.340.734,39</b>
<b>GASTU AIPAGARRIENAK</b>	
Pertsonal gastuak	4.272.467,04 (% 2,81ko igoera)
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	5.095.479,58 (%18,05eko jaitsiera)
Inbertsioak	3.778.500 (%25,68ko jaitsiera)
<i>Hirigintza</i>	
Eraberritze lanak Altzolan	110.000
Herriko gunek eraberritzea	100.000
Parkeak, jarlekuak	75.000
Elektrizitatea autobus geltokietara	32.000
Ermuarango bidegorri proiektuaren erredakzioa	100.000
Aiastia-San Migelera ura eramatea	700.000
<b>Gastuak guztira</b>	<b>14.340.734,39</b>



\*Urte hasieran onartutako aurrekontuen arteko konparaketa da goikoa. Urte amaierako aurrekontuak, behin betikoak, kontuan hartu gabe daude.

### 2010eko AURREKONTUAK



- Barne Salla
- Ogasuna
- Gazteria
- Hiri-segurtasuna
- Hezkuntza
- Kultura
- Euskara
- Ongizatea

### GERRIKOA ESTUTU

Gerrikoa estutzeko ordua heldu da, Ogasun Saileko arduradunen arabera. Izan ere, 2010. urtekoak aurrekontu “apalak” izango direla adierazi dute. “Sarrera eta gastuen optimizazioa du helburu nagusi”, diote. Ogasun Sailak nabarmendu du, baina, kontuek ez dutela aparteko arazorik sortuko eta Udalaren ekonomia saneatuta dagoela.

Aurrekontuek, dena den, bigarren urtez behera egingo dutenez, ez dira ohikoak izango. Diru gehien darabilen sailak izango du jaitsiera nabarmenena, Hirigintzak. Udalak ez du obra handirik aurreikusi datorren urterako, ez behintzat azken urteotan egin diren tamainakorik. Sigmako errotondako lanekin jarraituko dute, baina 2009.eko aurrekontuetan onartutako diruarekin.

Horrez gain, lehendik onartutako diru-kontuekin bi lan hauek ere egingo dituzte: Ubitarte eta Arrillaga kaleak berriz urbanizatzea edo Herri Eskolako patioa estaltzea.

### INBERTSIOETAKO BATZUK

Aiastia San-Miguel auzora ura eramatea izango da datorren urteko inbertsiorik garrantzitsuena. 700.000 euroko aurrekontua izango du lan horrek. Horren bidez, izena eman duten sanmigeldarren etxetara edateko ura iritsiko da. Lanen zati bat, dagoeneko, hasita egon arren, bigarren faseari dagokio kontu hau.

Elgoibarko herriko hainbat gunere abertzeko 100.000 euro gastatuko ditu Udalak 2010ean. Altzola eraberritzeko, ordea, 110.000 euro erabiliko ditu. Hiri-altzarietarako 75.000 euro izango ditu.

Ermuaran-Sallobente auzora bidegorria egiteko asmoa du Udalak, eta, horretarako, lehenik eta behin, proiektua erredaktatu beharra dago. Datorren urtean, beraz, proiektua erredaktatzeko enkargua egingo du Udalak eta zeregin horrek 40.000 euroko kostua izango du.

Udalak datorren urtean baranda berri gehiago jartzeko 100.000 euro erabiliko ditu. King Kong azpiko barandak jartzen laster hasiko dira, esaterako.

Horrez gain, beste inbertsio txikiago batzuk aurreikusi ditu Udalak: autobus geltokietara elektrizitatea eramatea (panel elektronikoak jartzeko), iturriak berritzea, leku batzuetan lurra egokitzea inor ez labaintzeko eta mugikortasunari buruzko ikerketa, esaterako.



**Trenbide kalea iluna da:** “Trenbide kalea apur bat lagata dagoela iruditzen zait. Argi gutxi dago, eta tren geltoki ingurunea, batez ere, oso iluna da. Jende asko ibiltzen da kale horretan trenera joateko, eta farola gehiago jartzea eskertuko nuke. Batzutan berandu iristen naiz herrira, eta beldurra ere pasatu izan dut zonalde horretan”.



**Aurten ez lukete Gabonetako argirik jarri beharko:** “Krisialdia dela-eta, Udala ere diru gutxiagorekin dabil, eta nire ustez, aurten Gabonetako argiak soberan daude. Gustatzen zaizkit, eta gabon-giro polita sortzen dute kaleetan, baina luxuak eta kapritxoak albo batera laga behar ditugu. Horrelako gauzak kontuan edukitzeko eskatuko nioke Udalari”.



**Txalo bat Errotatxoko kideei, Hiesaren Nazioarteko Egunean informazio mahaiak jartzeagatik:** “Badirudi azken urteotan ahaztu egin zaigula Hiesak gure herrian izan zuen eragina, eta Errotatxokoei esker, urtean behin bada ere, gogoratzeko aukera izaten dugu. Aurten ere ez dute hutsik egin, eta abenduaren 1ean hortxe izan dira, Hiesaren prebentziorako lanean. Segi horrela!”.



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkolzarra.com](mailto:barren@elgoibarkolzarra.com) / 943-74 41 12

I. URTEURRENA

## CARMEN IRIONDO UNCILLA

2008ko abenduaren 8an hil zen, 76 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, astelehenean, abenduak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

## ANTONIO MARTIN LOPEZ

2009ko azaroaren 18an, 61 urte zituela hil zen.

*“Pertsona on bat joan da, beti egongo da gure oroimenean.  
Agur, Antonio”*

Zure anai-arrebak, ilobak eta lehengusu-lehengusinak



&gt;&gt;Kalitate Turistikoaren Q-a

# “Bezeroek badakite zerbitzuen kalitate kontrola hauen prestaziorako bermea dela”

Zestoako Bainueteko zerbitzu termaleko eta kalitatearen zuzendaria den Igoia Garaizabalekin izan gara. Euskadin honezkeroko 267 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, instalakuntzak eta gestioa zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Jardunbide egokirako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorroztasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.

**- Zergatik egin duzue turismoaren sektorearekin lotutako sistema eta kalitate-programetako batzuen aldeko apustua?**

ISOen zertifikatutako gestio sistema izan arren, espazifikoki turismo kalitate sistema batean zertifikatuta egoteak bai guri eta baita bezeroei ere saltzen dugun produktuaren eta bezeroak eskatzen duen zerbitzuaren gaineko informazio zehatzagoa eskaintzen digu.

**- Zertifikatutako Kalitate Turistikoaren Q-a bezalako kalitate sistemak nolako abantailak ekarri dizkio zure erakundeari?**

Kalitate turistikoaren zertifikatuak ahal egiten guztiak zerbitzuaren hobekuntzara bideratzea dakar azken helburu moduan.

**- Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?**

Orokorrean, sailen arteko koordinazio hobea dugu, barne komunikazioari esker, eta, kalitate bilarekin, sailtako erreallitateaz gehiago jabetu gara. Azpiegiturari dagokionez, etengabeko hobekuntzak, gure bezeroen gogobetetze inkestak eta barne eta kanpoko auditorien emaitzek ematen digute betiar dugun informazioa epe motzera edo luze-ira inbertsioak egiteko orduan.

**- Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?**

Zerbitzuen kalitate kontrola hauen prestaziorako bermea da eta bezeroek horrela ulertzen dute. Hor sartu ditzazkegu zerbitzuen segurtasunarekin lotutako guztia (arfo bakteriologikoa, balneario eta sukaldaritza zerbitzuak, bezeroaren jabetzari establezimenduko zerbitzu guztiaren gestio informatizatua).

**- Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenarako animatu daitezela?**

Zerbitzu prestazioaren kalitate sistema honen gure egoeraren buruko eskariaren bilakae-



Jarri kalitate turistikoaren Q-a zure establezimenduan

94 607 75 88

94 404 74 70

[www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net)  
[www.euskalit.net](http://www.euskalit.net)

ra zehazten ahalbidetzen digu eta, horrela, gure bezeroen beharrei aurre hartzen.

**- Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?**

Noski! Hasieran lan erantsia dirudienaren emaitzak epe laburrean nabari ditezake.

**- Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?**

Gaur egun oso zaila da sektorean lehiatzea zertifikatutako kalitate sistema izan ezean.

**- Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?**

Gure zerbitzuen Diseinu eta Garapen arloa, asko harriduta lagatzen dituen, hedatuago baitago objektuen fabrikazioarekin lotzen duen ideia zerbitzuenarekin lotzen duena baino.

**- Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako ahalekiak sartu dituzte edo sartzeko asmoa duzue?**

Etengabeko hobekuntza taldeak dihardugu garatzen, prozesuen arabera banatuta, hainbat sailen parte-hartzearekin; eta batzorde birtuelak ere garatzen dihardugu. Azkenik, formazio ikastaroen balarapena egiten dugu denbora errealean, intrainelaren bidez, har-tzailean zein arduradun zuzenen eskutik.

Eusko Jauriluzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

• **Jardunbide egokirako programak:** helburu enpresariaren "profesionalizazioa" eta jarduera-konfiantza sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude.

• **Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** bezeroen ikaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 267 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

• **EFOM Bikaintasun eredu:** erakunde kalitatearekin bikaintasun maila osoa lortzea proposatzen den programa. Eritu honetan parte hartzen diharduten 17 establezimendu daude Euskadin.



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Errepresioaren aurrean gazteok batera

Pasa den astean, espainiar Poliziak 34 gazte independentista atxilotu zituen. Bostehun polizia baino gehiago, aurpegia estalita eta armaz josirik, euskal gazte mugimenduaren baitan borroka konprometitua aurrea eramatea delitu bakarra duten gazteak bahitzera bidali zituen espainiar Estatuak.

Gazte horiek sobera ezagunak ziren euren inguruan, hainbat arlotako borrokekiko konpromisoagatik: ikasle borrokan, etxebizitza eskubidearen alde, jai herrikoi parekide eta partehartzaileen alde, abiadura handiko txikizioaren aurkako gazte asanbladetan... Oso ezagunak ziren beraien elkartasun, emankortasun, konpromiso eta kontzientzia borrokalariengatik. Horregatik, bahitu, torturatu eta azkenean espetxeratu dituzte.

Operazio makro hau ez da erakunde baten aurkakoa izan, militantzia politiko eta sozialaren aurkakoa bizik. Nazioartean onartuak diren eskubide zibil eta politikoen aurkako operazioa da. Izan ere, ezin da independentziaren aldeko lana kriminalizatu, hau euskal gazte mugimenduaren aurkako operazioa da. Gazte horiek zigortzeko arrazoi bakarra euskal gazte mugimenduaren eta Euskal Herriaren eskubideak defendatu izana da.

Hori guztiagatik, eskubideen zapalkuntza larri horregatik (atxiloketak, tortura salaketa larriak...), espainiar Estatuak salatuta nahi dugu, baita ofentsiba honen oinarri diren gezur eta akusazio faltsuak babesten dituzten komunikazioak ere. Atxilotuen berehalako askapena eta Euskal Herriaren eta euskal gazte mugimenduaren eskubide demokratikoak errespetatzea exijitzen dugu.

Gure aldetik autogestio eta asanbladarekin beste herri eredu baten alde borrokan jarraitzeko konpromisoa berresten dugu. Eraso guzti hauen aurrean batera mobilizatzea deitzen dizuegu.

Elgoibarko Gazte Asanblada ☛

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutunegilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitzik argitaratuko.

## OHARRA

Abenduaren 8ko jai-zubia dela eta, hilaren 11n ez dugu **BARREN** kaleratuko. Gabonetako ale berezia abenduaren 18an jasoko duzue.

# Barren

BARRENez bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENez ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12


Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:




ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zaldua Armaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Oihana  
Tarragual

Onartuko didazu, Don Angel, bakarrik egon nahi izatea (bakardadean ongi sentitzea) eta bakarrik egon behar izatea gauza oso ezberdinak direla.



Angel  
Bazterretxea

Oihana, bakardadea zer den galdetzen didazu.

Bakardade hitzak bakarrik egotea adierazten du. Jakina, fisikoki inor aldamenen ez edukitzea da. Batzutan tristea; hurrengoan, berriz, desiragarria.

Gure inguruan zarata handia dagoenean, edo elkarbizitza zaila jartzen denean, bakardadea sendagarria izan daiteke. Nahiz eta askok horrela pentsatu ez, eta nahiago izan, gaizki bizi arren, zarata horretan gehiago murgildu.

**“Bakardadea bai,**

**baina maitasunez inguraturik”**

Bakardadea beti ez da kalterako. Batzutan, guk geuk aukeratu dezakegu bakarrik egotea. Bakardade hori norberak bilatua izaten da, eta horrek ez du tristura sortzen. Bakardadea lagun ona da desiratzen duzunean.

Baina derrigorrez bakarrik egote hori ez da xamurra izango.

Aldamenen norbaiten ondoan esnatzea eta bakarrik sentitzea, jendez inguratuta egotea eta inon baino bakartiago sentitzea, hori ere ez da hobea. Eta inori azalpenik eman gabe lasai-lasai ibiltzea ere ez da aukera txarra.

## “Oso gauza ezberdinak dira bakarrik egon nahi izatea eta bakarrik egon behar izatea”

Gizakiak, espezie moduan, bizirauteko besteen beharra du. Baina bakarrik egoteak dakar erabakiak inoren laguntzarik gabe norberak hartzea, eta ardura guztiak ere norberaren gain erortzen dira. Hori aberastasuna da neurri handi batean.

Bakarrik bidaiatzeak ere bertigoa ematen die askori, baina bakarrik bidaiatu dutenek esperientziarik zoragarrienak bizi izan dituztela onartu dute.

Ez dugu bakarrik egon nahi baina gero eta indibidualistagoa da gizartea. Bakarrik sentitzen garenean, burua bueltaka hasten zaigu, eta fantasma ugari agertzen dira. Jon Martinen *Bakardadeak* liburua gomendatzen dizuet. Ondorioak zuen esku uzten ditut.

Bakardadea zer da zuretzat, Don Angel, nahia ala beharra?

Alderantziz, bakarrik, lagunik gabe, inoren babesik gabe egon eta laguntza inondik ez badator, benetan tristea da. Hori bizi izan ez duenak ez daki zer den.

Eta maitasun gozo eta sakonean bizi izan eta giro hori apur-tzen baldin bada, orduan sentitzen dugu zer gauza eder galdu dugun eta zein gogorra den inor gure inguruan ez sentitzea. Eta hori askok probatu izan dugu.

Giro estresante batean gaudenean, zarataz eta problemaz inguraturik, beharbada bakardadeak baretu gaitzake. Baina nik orduan ere nahiago nuke nire bakardade puntual hori, gozotasunez inguratuta egotea. Eta gozotasunaren iturri bat maitasuna da. Horregatik: bakardadea bai, baina maitasunez inguraturik.

Bakardade fisikoa? Bai batzuetan. Sekula ez bakardade espirituala.

Ziurtasun bat: baten baten geriza gozoa beti izango dudala: lagun batena, familiarena, bikotearena... Eta honela ez zara behin ere bakarrik sentituko.



Elgoibarko Udala



# martxelo otamendi

Defentsaren egun bateko atzerapen eskaera onartuta, abenduaren 15ean hasiko da azkenean *Egunkaria*-ren kontrako epaiketa, Espainiako Auzitegi Nazionalan. Epaiketa atarian, orain arteko babesa eskertu eta “beste ahalegin bat” eskatu die herritarrei Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendari izandakoak.

Ainara Argoitia

## “Ezpata gainean dugula bizi gara”

**Prebisio txarrenak bete dira. Epaiketa atarian, nola zaudete auzipetuak?**

Oso kezkatuta. Auzitegi Nazionalak euskal auzietan nola jokatzeko duen ikusita, ezin bestela egon. Gure errugabetasuna eta gure lanaren zuzentasuna aldarrikatzen sartzen gara, eta kartzela zigor handiekin irten.

**Zer du berezia *Egunkaria* auziak?**

Fiskalaren jarrera. Gure kasuan, akusazio partikularrik ez dago. Gure jardunak norbait kalte egin izan balio, norbanako horrek akusazio partikular gisa aurkeztea izango luke, baina gu ez gaitu inork salatu, *Egunkaria*-k ez ziolako inori kalterik egin. Fiskalak, Estatuaren defendatzaileak berak ere, badaramatza hiru-lau urte delitirik ez dagoela esanez. Eta herri akusazioa da hirugarren hanka: AVT eta Dignidad y Justicia. Eta horiek badakigu Guardia Zibilaren eta Alderdi Popularraren beso judicialak direla. Fiskalak hartu duen jarrera hau berria da bultzada politikoko euskal auzietan. **Epaiaketa egin egingo da, berme juridikorik ez egon arren. Nondik dute Dignidad y Justicia eta AVTk horrenbesteko indarra?**

Alderdi Popularraren garaian, ETaren biktimen mundua komunikabideetako lehen lerroan jartzeko egindako saio baten ondorio dira horiek. AVTk ETaren biktimen erakunde izae-

ra bazeukan garai batean, eta aktibitate handia izan zuen, nahiz azkeneko hilabeteetan isilago dabilen; Dignidad y Justicia, berriz, beti izan du helburu garbi bat: ahalik eta euskal herritar gehien kartzelatzea. Horko arduraduna ETaren biktima baten semea da, eta mendekuz ari da. Euskal herritarrek dauden auzi guztietan parte hartzen du.

***Egunkariak* ez ziola inori kalterik egin diozu, baina, aldiz, Auzitegi Nazionalak *egunkaria* euskaraz irakurtzeko eskubidea ukatu zigun. Ezin al da euskal gizartea akusazio partikular gisa aurkeztu?**

Orain ez. Epaiaketa hau gure eta *Egunkaria*-ren mantxetaren kontrakoa da, eta ez Estatuaren kontrakoa. Gure kontra agertu daiteke jendea, eta defentsa, gure alde, baina Espainiako Estatu Judizialak ez du beste partetik onartzen. Beste gauza bat da, zuk esan duzunaren haritik, epaiketa egin ostean eta sententzia ezagutu ondoren, noizbaiten Estatuaren kontra jotzea. Eta ez *Egunkaria* gabe utzi gintuelako bakarrik, baita enpresari ere kalte egin ziotelako. Rumasa nazionalizatu ondoren, egon ziren sententzia batzuk esanez nazionalizazio batzuk ez zeudela justifikatuta, eta horregatik enpresa batzuk itzuli egin dizkiete jabeei, eta, gainera, kalte-ordainak eman dizkiete. Horretarako, baina, sententziak absolutorioa izan behar du, eta gero, en-

presaren jabeek, akziodunek, aukera izango genuke akusazio partikular moduan aurkezteko, Estatuaren kontrako epaiketa horretan. Hortik aparte, herritarrak herri akusazio gisa aurkeztea ere izango lukete.

**Del Olmok Egunkaria itxeko erabili zuen Guardia Zibilaren txosten hori bera al da Garzonek atzera bota zuena?**

Bai. ETAko lau kideri ustez atzemandako agiriak dira, denak anonimoak, Guardia Zibilaren arabera ETAko eta KASeko kideek idatzitakoak. Egunkaria-ri buruzko hainbat aipamen egiten dituzte agiri horietan, denak ere kanpotik. Agiri guztiak aspalditik ondo ezagutzen zituzten Auzitegi Nazionallean, bai. Baltasar Garzoni 2001ean iritsi zitzaizkion, eta ez zuen inor inputatzeko oinarri ikusi. Garzonek atzera bota ostean, Auzitegi Nazionalako fiskalburuak Del Olmori bidali zizkion paper haiek, guardia zegoen egun batean. Del Olmo Durangoko Auzitegitik Auzitegi Nazionalera iritsi berria zen orduan, eta hark onartu egin zituen. Horren inguruan *El Pais*-ek berak argitaratu zuen ospe bila ari zen epaile batek hartu zuela kasua. 2001ean onartu zuen, eta bi urtean isilean jardun zuten lanean. Gure telefono deiak grabatu zituzten, gure kontu korronteak kontrolatu zituzten, eta gure atzetik ibili ziren, ezkutuan. Eta 2003an, *Egunkaria* itxi zuen epaileak.

**Denbora luzea eman duzue defentsa prestatzen. Hala ere, zuen defentsak aurkeztutako 70 lekukotatik 16 baino ez dituzte onartu. Zeintzuk baztertu dituzte, eta zergatik?**

Bai, guri hamarretik bi onartu dizkigute, eta Dignidad y Justicia eta AVTri, berriz, berrogeitik gora. *Egunkaria*-ren sorrera prozesuari eta haren izaerari buruz defentsak galdeketa egin nahi zien lekuko ugari bota ditu atzera: *Egunkaria* sortu aurretik euskarazko egunkari baten sorrerari buruz gizartean izan zen gogoetari buruz deklaratu behar zutenak, hedabideetan hori nola bizi izan zen azaldu behar zutenak... Kasu batzuetan epaimahaiak esan du lekuko batzuen beharrik ez dagoela, begibistako kontuak direlako edota azaldutako dokumentuetan sobera garbi jasota dagoelako haiek esango dutena. Orduan, kasu batzuetan nabarmena da epaimahaiak baduela nahi bat epaiketa laborra egiteko. Gertatzen dena da guri kendu dizkigutela lekuko mordo bat, eta, aldiz, herri akusazioari ia gehienak onartu dizkiotela.

**Zuetako batzuek jarritako tortura salaketei buruz hitz egiteko, Theo van Boven NBEko torturei buruzko kontalaria proposatu zuen defentsak, baina hori ere ez dute onartu.**

Ez. *Egunkaria* itxi ostean Theo van Boven gurekin bildu zen Nazio Batuen Erakundearentzako txostena prestatzeko, eta guk kontatu genizkion berri emateko deitu genion. Epaileak dio, baina, hau ez dela torturen kontrako epaiketa bat, eta atzera bota du. Itxierari buruzko epaiketa dela dio. Gu barruan saiatuko gara torturei buruz hitz egiten, baina ziur naiz ez digutela utziko.

**Eta non gelditu dira tortura salaketa haiek?**

Nirea Strasburgoko Giza Eskubideen Auzitegi atarian dago. Espainiako Justiziako bide guztiak amaituta, hara jo genuen. Oraindik ez daki-

gu, hala ere, aztertuko duten ala ez, eta hor dago, zain. Esaten dute aurkezten diren salaketa guztien %4 bakarrik onartzen dituztela aztertzeko. Beste salaketa batzuk itxia daude, Iñaki Uriarena kasu, eta beste batzuk halako *linbo* judicial moduko batean daude. Inork ez daki non dauden.

**Zapatuko kantaldian esan zenuten justiziak, absoluzioaz gainera, errepazioa exijitzen duela, baina ez dakizuela norbaitek errepazioa dion zuen zazpi urteko "sufrikarioari". Zertan aldatu da zure bizitza ordutik?**

Elementu berri bat gehitu zaio gure egunerokoari: gure errugabetasuna frogatu behar dugu, eta horri eskaini diogu gure energia gehiena. Herritarren berotasunak mantendu gaitu zutik, baina gainean ezpata bat dugula bizi gara. Auzipetuen kasuan, beti mantendu dugu gure arteko makineria ondo koipetuta, eta *Egunkaria*-ren garaitik elkarrekin egon gara beti. Astero bildu gara, mila ate jo ditugu, eta etorri zaizkigun guztiak hartu ditugu. Ibili gara gaztetxeetan eta ibili gara parlamentue-

tako alfonbra gorriak zapaltzen; egon gara munduko hedabide nagusienekin eta baita eskolameekin. Zoritxarrez ez da egongo guk besteko babesa jaso duen besterik.

**Beste ahalegin bat eskatu duzue orain.**

Bai, behar da. Euskal herritarrok azken urteotan ez dugu bultzada politikoko auzi bat bera irabazi, eta inflexio puntu bat behar dugu. Aurreneko garaipen bat behar dugu, joera aldatu eta atzetik beste batzuk etorri daitezten.

**Torrealdairi entzuna da itxi berritan Donostian egin zen manifestazioagatik ez baltz, beste elkarte batzuk ere arriskuan leudekela orain.**

Hala delako. Guardia Zibilaren tesia garbia da: euskararen alde lan egitea zilegi da, beti ere erakunde ofizialen arabera. Orduan, erakunde ofizialetatik kanpo euskalgintzan ari direnak ETA dira. Hala, tesi horrekin sekulako futbol zelaia dute jokatzeko eta egurra emateko. Mundu normalizatueta gobernuak kanpoko erakundeak balore

positiboak dira, baina hemen ez. Donostiako manifestaziora joan zen jende guztia *Egunkaria*-ren alde joan zen, baina baita nor berea defenditzera ere. "Egunkaria jotzen badute, edozein jo dezakete" pentsatu zuen jendeak. Kataluniarrek gauza bera pentsatu zuten: "Lagundu diezaiegun euskaldunei eraso hau gelditzen, hurrenak gu gara bestela eta". PPK eta Guardia Zibilak erabaki zuten euskaldunei susto bat ematea, eta inork espero ez zuenaren kontra jo zuten. *Egunkaria*-k 15.000 ale saltzen zituen, eta ez zen Estatuarentzat arriskua. Garai hartan Espainiako tertulietan sekulakoak esaten zituzten kooperatiben, Jaurlaritzaren eta abarren kontra, baina *Egunkaria* ez zuten aipatzen. Pentsa! Herritarren haserrearen Donostiako erakuspen hark lortu zuen hura gelditzea.

**Abenduaren 19rako Bilborako deia egin duzue, euskarak batzen gaituela erakusteko.**

Ahalik eta jende gehien batu behar dugu Bilbon, Donostiako mezu hura berriz ere entzun dadin Madrilan. Euskarak eta euskal kulturak garaipen bat behar dutelako.

**“Azken urteotan ez dugu bultzada politikoko auzi bat irabazi, eta aurreneko garaipen bat behar dugu”**

## Abenduaren 31n amaituko da Urruzunoko babes ofizialeko etxeen zozketan sartzeko epea

71 etxe banatuko dituzte, eta 35 urtetik beherakoentzat izango dira %80

Urruzunon eraikiko dituzten Babes Ofizialeko etxeen zozketa datorren urtean egingo dute, eta zozketa horretan parte hartu ahal izateko abenduaren 31ra-ko eman beharko da izena Eusko Jaurlaritzako Etxebide programan. Alfredo Etxeberria alkateak azaldu du zozketa 2010eko urri aldera egingo dutela. Ondoren hasiko da Grupo Eibar enpresa etxeak eraikitzen.

Zozketa eta zerrenda Etxebidek berak kudeatuko ditu. 71 etxebizitza zozketatu, eta jabetzan banatuko dituzte. Lehenetasuna edukiko dute bi urtez Elgoibarren erroldatuta daudenek eta gazteek. Izan ere, 35 urtetik beherakoentzat gorde dituzte 57 etxe (%80). Etxebiden, une honetan, Elgoibarren erroldatuta daudenen 333 eskari daude. Horietatik, 266 eskari etxea erosteko dira, eta 177 eskari errentan hartzeko.

Interesatuak izena emateko orriak [www.etxebide.info](http://www.etxebide.info) webgunean jaso ditzakete.



Sustapen libreko (koloreztatuta) eta Karkizanoko etxeen artean egingo dituzte babes ofizialekoak (grisez dagoen lehen blokea).

### Ordubetean amaitu zen okela gisatua zapatuko ferian



Elgoibarko hamar elkarte gastronomikok okela gisatua prestatu zuten joan zen zapatuko ferian, eta ordubetean amaitu zen dena. Sanlo eskubaloi taldekoek saldu zituzten pintxoak, 400 gutzira.

Udalak eta Debemenek 30 kilo okela banatu zituzten sukaldarien artean eta beste 20 bat kilo patata eta barazki. Osagai horiekin, goizean goiz hasi ziren lanean elkar-teetako bazkideak, eta 12:00etarako prest zuten okela gisatua. Herritarrek euro batean dastatzeko aukera izan zuten

### Lazo gorriak banatu zituzten Hiesaren Nazioarteko Egunean

Lazo gorriak izan ziren protagonista abenduaren 1ean. Errotatxo elkarteak eta Gurutze Gorriak bat egin zuten Hiesaren Kontrako Nazioarteko Egunean, eta gaixotasunari buruzko informazio mahaiak jarri zituzten merkatu plaza aurrean. Gaixotasunari aurre egiteko prebentzio neurriak hartzearen garrantziaz ohartarazi zituzten elgoibartarrak. Arratsaldean, Gurutze Gorriak antolatuta, Hiesari buruzko hitzaldia izan zen.



## Protagonista **Uxue Alberdi**



Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaren atarian geratu da Uxue Alberdi. Donostian jokatu zuen elgoibartarrak bigarren finalaurrekoa, joan zen domekan, eta bertan Maialen Lujanbiok lortu zituen puntu gehien. Abenduaren 13ko finalean zazpi bertsolarik hartuko dute parte: Andoni Egañak, Maialen Lujanbiok, Amets Arzallusek, Aitor Mendiluzek, Jon Maiak, Unai Iturriagak, Aitor Sarriegik eta Sustrai Colinak. Uxue Alberdi zortzigarren postuan geratu da azkenean, finaletik kanpo.

## Berbia **ONA**

Dagoeneko 1.096 lagunek atera dute ONA txartela Elgoibarren. Osasun Nortasun Agiria (ONA), Osakidetzako orain arteko txartela ordezkatzeko du osasun txartel elektronikoko berri horrek. Urriaren 5ean jarri zuten abian ONA txartelak egiteko kanpaina, eta Jaurilaritza oso gustura agertu da egitasmoak izan duen erantzunarekin. ONA txartela doan eskuratu daiteke Herritarren Arreta Bulegoan, Osasun Zentroan, KZgunean edo Jubilatuen Biltokian.

## Irudia **Arkumearen jaia**

Elgoibarko eta inguruetakoko musulmanek Arkumearen Festa edo Aid al-Adha ospatu zuten azaroaren 27an. Musulmanen erlijio egutegian data seinalatua da bildotsa hiltzeko eta jateko festa, kristauen Gabonen parekoa. Urtean behin Mekarako erromesaldiaren garaian izaten da, Ramadana amaitu eta bi hilabete eta hamar egunera, hain zuzen ere. Ibrahimek (Abrahamek) Jainkoari erakutsi zion fideltasuna ekarri zuten gogora Sigmako frontoian egindako ekitaldian.



## **Emakume bati lapurretan egin zioten zapatu gauean**

Elgoibarko emakume batek satatu du soinean zeraman poltsa ostu ziotela hiru lagunek zapatu gauean. Gabriel Krutzelaegi kaleko bizilagun batek zuzenean ikusi zuen eraso atxeko leihotik, eta udaltzainei deitu zien. Emakume kaltetua haren bila dabil eskerrak emateko. Lapurretaren biktimak telefonoa laga du BARRRENEKO erredakzioan, lagundu zion emakumea berarekin kontaktuan jarri dadin, hala nahi badu.

## **Hiru urte eta erdiko kartzela zigorra Zearsolorentzat**

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak hiru urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri dio Roberto Zearsolo Bilboko Guggenheim museoko Administrazio eta Finantza zuzendari ohia. Merkataritza arloko agiriaren faltsutzea eta lapurretatagatik zigortu dute elgoibartarra. Iazko apirilean jarri zuen Bilboko Guggenheim museoko patronatuak Zearsoloren kontrako salaketa Bilboko Instrukzio Epaitegian, 1998tik 2008ra 487.000 euro ostetatik.

## **Haritz dantza taldeak 'Axuri Beltza'-ren 40. urteurrenean hartuko du parte**

*Axuri Beltza* dantzak 40 urte egingo ditu aurten, eta hori ospatzeko ikuskizun berezia izango da gauean, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Elgoibarko Haritz dantza taldekoak bertan izango dira, beste hainbat dantza taldekin batera. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da.

## **'Gure denda, gure poza' kanpainako azaroko saritua**

*Gure denda, gure poza* kanpainako azaroko zozketa egin dute, eta 17880 zenbakia izan da irabazlea. (Erreserba: 00018). Saridunak 100 euroko erosketa txeketa jasoko du. Abenduaren 26ra arte dago saria eskuratzeko epea. Bestalde, urriko irabazlea Mari Carmen Perez izan da.

## Iker Maiora Atleta

**Iker Maiorak seigarren egin zuen domekan, Donostiako Nazioarteko Maratoian, eta bera izan zen helmugara iristen lehen gipuzkoarra. Era berean, bere marka ere ondu zuen, eta sasoi onean dagoela erakutsi zuen. Guztira, 2.645 lasterkarik amaitu zuten 42 kilometro pasatzeko lasterketa.**

Ainara Argoitia



## “Abuztu erdian hasi nintzen maratoia prestatzen”

### Zelan prestatu duzu maratoia?

Preparazio zorrotza eta espezifikoa eskatzen du. Ez da berdina 10-15 kilometroko proba bat edo maratoi bat. Aurten, maiatzeko azken astean eta ekaineko lehenengoan atsedena hartu nuen, eta gero egunean 40 minutu inguru entrenatzen hasi nintzen. Apurka-apurka entrenamenduak gogortzen hasi ginen, eta gimnasioa eta serieak tartekatzen, astean bi egunez-edo. Mendaroko ospitalera bidean egiten ditut serieak, aldapan. Maratoirako, buru-belarri, abuztuaren erdi aldera hasi nintzen, proba jokatzeko hamasei bat aste falta zirenean.

### Zertan datza entrenamendu espezifiko hori? Eta zelan ikusten zenuen zeure burua maratoirako?

Astean 120-130 kilometroren bueltan egiten ditut. Maratoirako zazpi aste falta zirenean, 147 bat egin nituen astebetean, eta 151 kilometro pilatu nituen gero, maratoirako bost asteren faltan. Handik aurrera, gutxitzen joan nintzen. Aste barruan neu bakarrik aritzen naiz, Mendarotik Debara bidean sarri. Gero, igandeetan, taldekideekin entrenatzen naiz. Saio luzeak egiten ditugu. 18 kilometroko saio batekin hasten gara, eta 34koarekin amaitu. 34ko saio luze hori maratoirako hiru-lau aste falta direnean egiten dugu, eta gero, egunak aurrera joan ahala, saioak laburtzen hasten gara. Serieak ere egiten ditugu. 2.000ko seriekin hasten gara, kilometroa 3,25ean eginez.

### Maratoirako entrenatzeko egin duzu 42 kilometroko saiorik?

Ez. Askok uste dute maratoia ondo prestatzeko ezinbestekoa dela distantzia bereko saioak egitea, eta entrenamendu bizkorrek egitea. Hori ez da horrela. Hori eginez gero, lehertuta bukatzeko arriskua dago. Hobeto da entrenamendu bat jarraitzea, eta egunero egitea korrika, beti ere behar denean atsedena hartuta.

### Zer sentsazio izan zenituen zortzigarren maratoi horretan?

Ondo sentitu nintzen. Sasoi iritsi nintzen. Entrenamenduetako denborak banituen eta laktatos proba ere egin nuen, gorputzak zein errototan lan egin dezakeen jakiteko. Datu horiekin, eta urteetan pilatutako eskarmentuarekin, gutxi-gorabehera banekien ondo bidean zer eman nezakeen. Asier Cuevas eta Ramon Otegi izan nituen laguntzen, eta haiek ere markatzen zidaten errotmoa. 2:28:00 denbora ondu nahi nuen, eta, horretarako, kilometroa 3:30ean egin beharra neukan. Maratoi erdia 1:13:35ean egin nuen, eta indartsu iritsi nintzen.

### Bukaerara arte lagundu zizuten erbiek?

Rafa Iglesias txapeldunarentzako erbi lanak egiten hasi zen Asier, baina zortzigarren kilometro aldera, Iglesias oso erraz zihoala ikusita, gu-rekin gelditu zen, Ramon Otegiarekin eta biokin. Ramonek maratoi erdia egin zuen nire ondoan, eta Asierrek 30. kilometroan laga ninduen, handik aurrera zer egin banekiela esanda. Askok zor diet bie.

### Non moldatzen zara hobeto, lasterketa luzeetan ala laburragoetan?

Luzeetan. Nik 5.000 metrokoan daukadan marka ez da gauza handia. 10.000koan hobea daukat, eta onena, berriz, maratoian. Ez naiz oso bizkorra, eta maratoian ere, beti errotmo bat mantentzen saiatzen naiz. Batzuk lasai antzean hasten dira, eta gero hasten dira bizkortzen. Beste batzuk, berriz, distantzia luzean moteltzen hasten direla jakinda, hasieratik gogor hasten dira.

### Maratoia eta gero, zer?

Neguko denboraldia egingo dugu: krossa. Ez naiz oso ondo moldatzen, baina bueno. Indar handiagoa eskatzen du, eta nik ez daukat. Bolunburu Krossa jokatu da abenduan, Eibarren, eta badaukat joateko asmoa. Urtarrilean, berriz, Mugertza Krossa, Lasartekoa eta Azpeitiko daude, eta otsailan, Euskadiko Txapelketa eta taldekako Espainiakoa. Hoietan saiatuko gara.

# Kontzezio Azoka egingo dute bihar Mendaron

Baserritar jantzi dotoreena sarituko du Udalak, eta parte hartzera deitu ditu herritarrak

Urtero legez, eta abenduko zubiarekin batera, Kontzezio Azoka egingo dute bihar Mendaron. Baserriko produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izango da, eta egunean zehar ekitaldi ugari egingo dira, euskal giroan. Azoka 9:30ean zabalduko dute, eta 13:30ean banatuko dituzte sariak.

Trikitixa kalejira, herri kirolen erakustaldia eta erromeria ere egingo dira. 12:00etan irtengo dira herriko trikitixa taldekoak kalejiran, eta orduerdi geroago hasiko da herri kirolen saioa, aizkolarien arteko erronkarekin. Floren Nazabal eta Jose Ignacio Flores ariko dira, batetik, eta Donato Larretxea eta Ernesto Ezpeleta *Biurri*, bestetik. Era berean, Hodei Ezpeleta herriko aizkolari gaztea ikusteko aukera ere izango da. Ondoren, Idoia Etxeberria harrijasotzailearen txanda etorriko da.

13:30ean banatuko dituzte sariak: baserritar jantzi dotoreenari eta baso txukunenari. Izan ere, baserritar jantzeko gonbidapena egin du Mendaroko Udalak. Arra-



Aitor Etxeberria margolaria, Nerea Larrañaga eta Amaia Etxabe Egunkaria-ren aldeko taldeko kideekin.

tsaldean, berriz, 18:00etan, Kartsuki taldeak kontzertua emango du.

## 'Egunkaria'-ren aldeko erretratua

Sariak banatu aurretik, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko elkartasun erretratua aterako dute plazan. Era berean, *Egunka-*

*ria*-ren aldeko materiala ere jarriko du salgai Mendaroko herri-plataformak. Kamisetak eta 10 euroko bonoak salduko dituzte, eta baita erriak ere. Aitor Etxeberria margolariak emandako koadro bat zozketatuko dute, Morroskilo liburudendako erakuslehoian ikusgai dagoena.

**XV. KONTZEEZIO AZOKA**  
**MENDARON**  
2009ko abenduaren 5ean

**09:30 AZOKAREN HASIERA**

**12:00 TRIKITIXA taldearen KALEJIRA**

**12:30 HERRI KIROLAK**  
Aizkolarien arteko erronka  
Floren Nazabal - Jose Ignacio Flores  
Donato Larretxea - Ernesto Ezpeleta  
Aizkolari txikia  
Hodei Ezpeleta  
Harrijasotze erakustaldia  
Joseba Ostolaza

**13:30 SARI BANAKETAK eta EROSKETA ZOZKETA**  
Baserritar jantzi dotoreenari  
Baso txukunenari

**18:00 KARTSUKI Taldearen kontzertua**  
Iparraideetik euskal kantak San Agustinen

**TRIKITILARIAK ERE BAI, AZOKA ALAITZEN**

Merkataritza-zentro handia zabaldu dute Eibarren.

## Kalte ala mesede egingo die El Corte Ingles saltokiak inguruko denda txikiei?



Nik uste dut kalte egingo diola, mesede baino gehiago. El Corte Inglesen aukera handiagoa dago, eta behin han sartutakoan zaila izango da jendea denda txikietara ere joatea. Egia esan, merkataritza-gune handiak erosoak dira. Niri gustatzen zaizkit.

**Vicente Diez**

52 urte, kalitate arduraduna



Kalte egingo die. Euria egiten badu, esate baterako, jendea El Corte Inglesera joango da. Elgoibarren ez dut uste eraginik izango duenik. Aukera handia dago hemen, eta astean zehar dena herrian erosten dut. Asteburuetan umearekin joaten gara saltoki handietara.

**Javier Rodrigo**

38 urte, espezialista



Nire ustez, denda txikietan gutxiago erosiko du jendeak, hasieran batez ere. Denborarekin egoera berriz lehengora bueltatuko da, baina nobedadea den bitartean asko joango dira El Corte Inglesera. Elgoibartik oso gertu dago, eta hemengo dendek igarriko dute.

**Jessika Ferriz**

19 urte, ikaslea



Mesederik ez die egingo! Baina El Corte Inglesen herriko jende asko hasi da lanean, eta hori ona da. Niri ez zaizkit merkatal zentro handiak gustatzen, ez dakit leku horietan erosten. Dirua herrian gastatu behar da, eta, gainera, denda txikietako zerbitzua hobea da.

**Camelia Vazquez**

75 urte, etxekoandrea



### IRAGARKIA

Idatzi honen bidez aditzera eman da: segur aski 2010ean, Elgoibarko Udalak eta Eusko Jurlaritzak elkarrekin, Urruzuno Sektoreko 1 Partzelan, 2 eta 3 Azpisektoreetan aurreikusita dagoen erregimen orokorrean babestutako 71 etxebizitzaren zozketan parte hartzeko ezinbestekoa izango dela **2009ko abenduaren 31 baino lehen** ETXEBIDE Etxebizitzaren Eskari Erregistroan izena ematea.

Interesatuak izena emateko orriak [www.etxebide.info](http://www.etxebide.info) jaso ditzakete. Baita Donostia-San Sebastian Andia k/ 13an, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Lurralde Ordezkaritzan ere, 012) Tinoa, eta epe horren barruan Elgoibarko Euskadiko Kutxako edo Kutxako bulegoetan aurkeztu beharko da, edo, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Ordezkaritza bertan, legez jarritako eran posta bidez bidal daitekeenaren kaltetan gabe.

**ELGOIBARREN, 2009KO AZAROAREN 26AN**

**ALFREDO ETXEBERRIA MURUA ELGOIBARKO ALKATEA**

**PUB**  
**ARRATS**

Zelaikoa plaza, 2. MENDARO. Tel: 943 75 50 58



Azaroan...

## JAIOTAKOAK



**Izar Lopez Larrañaga**  
Urriak 30  
Aitor eta Nerea



**Sara Gabilondo Iranzo**  
Azaroak 2  
Jose Juan eta Felisa



**Luken Lago Zangitu**  
Azaroak 2  
Jon eta Zuriñe



**Intza Hemando Barrutia**  
Azaroak 8  
Jorge eta Miriam

**Younes El Aarrass Zelaia**  
Azaroak 12  
El Hassan eta Henar

**Nora Ugalde Berasategi**  
Azaroak 16  
Enrike eta Miren Josune

**Maryam Atmani**  
Azaroak 18  
En Najem eta Naoual

**Duna Santos Otegi**  
Azaroak 19  
Imanol eta Noemi

**Olatz Iranzo Lobete**  
Azaroak 22  
Mario eta Alicia

## EZKONDUTAKOAK

• Juan Carlos Aizpurua eta Maite Zabala • Azaroak 13

## HILDAKOAK

Jose Maria Larreina Iriarte • 76 urte • Azaroak 4

Pilar Ulazia Sorraluze • 76 urte • Azaroak 8

Ascen Nuñez Gañan • 40 urte • Azaroak 11

Eugenia Zubiaurre Arrieta • 94 urte • Azaroak 11

Maria Felix Mansilla • 86 urte • Azaroak 18

Paule Konde Isasi-Isasmendi • 88 urte • Azaroak 21

Francisca Pardo Valera • 83 urte • Azaroak 22

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua  
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 740 117 - 943 741 656  
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astehenerako ekarri behar duzu erretratua BARRENEko erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

# ALINA SANCHEZ

Salsa irakaslea

**Orain dela 11 urte iritsi zen Alina Sanchez Elgoibarrera Kubatik. Hainbat lanetan jardun du ordutik, eta orain salsa irakasle dihardu, Olaizaga kiroldegian. 17 lagun ditu klasean, neskak eta mutilak. Interesatuak oraindik badute izena emateko aukera.**

**“Kubatarrok  
barnean  
daramagu dantza”**

#### **Nolatan salsa irakasle?**

Lagunek animatu ninduten. Kanean elkartzen ginen bakoitzean esaten zidaten dantza eskolak emango banitu, beraiek etorriko zirela ikastera. Hasieran ezetz esan nien. Nik dantzan banekien, baina niretzako. Sekula ez dut irakatsi, eta ez nuen uste dantza irakasle izango nintzenik. Ispilu aurrean praktikatu behar izan ditut pausoak, polikiago eta erakusteko moduan. Gainera, pauso eta figura bakoitzak izen bat dauka eta horiek ere ikasi behar izan ditut. Baina gustura nabil, eta ikasleak ere bai.

#### **Zuk nola ikasi zenuen dantzan?**

Umetan ikasi nuen, Kuban. Nire izebek oso ondo egiten dute dantza, eta haiei begira ikasi nuen, batez ere. Bizitza dantza da Kuban, eta kubatarrok dantza barnean daramagu. Kanean beti entzuten da musika, eta jendea dantzan ikusten da bazter guztietan. Sukaldatzen ari garen bitartean ere, dantza egiten dugu. Hala ere, badago dantzan ez dakien jendea, baina gehienek dantza egiten dute.

#### **Euskaldunok dantza gutxi egiteko fama daukagu. Zer uste duzu?**

Hastea kostatzen zaie, baina behin arrankatzen dutenean oso animatuak dira. Eta parrandan dantza asko egiten dute. Jendea-



rekin sorpresak hartu izan ditut. Nire senarrak ez du dantza egiten, latsa ematen dio, eta semea ere aitaren antzerkoa da. Baina Kubara joaten garenean transformatu egiten da semea, eta nire ilobekin dantza pila bat egiten du. Beste bat dirudi!

#### **Bakarka ala bikoteka dantzatzen da salsa?**

Bi aukerak daude. Ikasteko hobe da bakarka, eta pausoak ikasi ondoren, bikoteka dantzatzea da egokiena. Salsak dituen pausoak oinarritzakoak dira, eta beste edozein dantzari aplikatu dakizkioke. Aerobicen asko erabiltzen dira, esate baterako.

#### **Neskak ala mutilak dituzu gehiago ikastaroan?**

Bietatik dauzkat, baina neskak gehiago. Ahoz aho, jendeari nire eskoletara etortzeko esaten diodanean, mutilak animatzen ibiltzen naiz, batez ere. Neskak errazago etortzen dira.

#### **Nola animatuko zenituzke elgoibartarrak dantzara?**

Lotsa alde batera laga eta probatzera etortzeko esango nieke. Ez da dantza zaila, eta oinarritzako pausoak ikasitakoan oso dibertigarria da. Gainera, kirola egiteko beste modu bat da. Asko izerditzen da, eta erlaxatzeko modu bikaina da. Nik arazo guztiak ahazten ditut dantzan nagoen unean. Indarberrituta geratzen naiz, eta uste dut ikasleek ere gauza bera sentitzen dutela.

# Berrehun lagun baino gehiago bildu ziren Plaza Handian ‘Egunkaria’-ren elkartasun argazkia ateratzeko

Hilaren 19an Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusak jarriko dituzte



**B**errehun lagunetik gora elkartu ziren zapatu eguerdian Plaza Handian *Egunkariari* eta auzipetuei elkartasuna eta babesa emateko. Ekitaldia hasteko, Meabebasterretxea eta Ziarda bertsolariek hiruna bertso kantatu zituzten. Gero, *Egunkariako* langilea izandako Ainara Argoitia eibartarrak hartu zuen hitza, eta bertaratutakoei eskerrak emateaz gain, beste ahalegin bat eskatu zien, bere esanetan egoera “beltza” delako. Kamisetak eta bonoak ere saldu zituzten epaiketako gastuei aurre egiteko, eta, guztira, ia 2.000 euro batu zituzten. Epaiketa hilaren 15ean hasiko da, eta abenduaren 19an Bilbon egingo den manifestaziorako autobusak jarriko dituzte Elgoibarko Izarrak. Izena emateko azken eguna abenduaren 14a izango da.

## Nerea Alaba eta Amaia Pinacho arrasatearrek egingo dute Elgoibarko toponimiari buruzko lana

Elgoibarko toponimiari buruzko lana egiteko Gotzon Garate beka sortu du Udalak, eta Nerea Alaba eta Amaia Pinacho arrasatearrek izan dira irabazleak. Udalak Euskaltzaindiarekin sinatu du hitzarmena, eta beka-dunek aholkularitza eta formaziorako tutore bat izango dute. 20.000 euro jasoko dituzte, Elgoibarko toponimia bildu, sailkatu, kokatu eta finkatzeko, eta hamalau hilabeteko epea izango dute lana burutzeko.



## Gabonetako eskaintza zabala prestatu du Atxutxiamaikak

Atxutxiamaika aisialdi taldeak Gabonetarako eskaintza zabala prestatu du. Abenduaren 22an, Txan magoaren ikuskizuna izango da Herriko Antzokian, 17:00etatik aurrera. Abenduaren 24an, bestalde, Olentzero eta Mari Domingiren kalejira izango da, eta Plaza Handian, *Behin batean Gabonak* idazlehiaketako sariak banatuko dituzte. Irteerak ere egingo dituzte, eta negulekuetan izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiagorako 943 741 626 (Ainara) telefonora deitu daiteke.

# Hogeita bat elgoibartarrek amaitu zuten domekan Donostiako Maratoia

Unai Narbaiza izan da herriko antxitxikari azkarrena

**D**onostiako maratoia jokatu zen joan zen domekan, eta hogeita bat elgoibartar iritsi ziren helmugara, iaz baino bat gehiago. 2006an eta 2007an zortzi elgoibartarrek amaitu zuten maratoia, eta azken bi urteotan asko handitu da kopuru hori. Guztira, 2.645 lagunek egin zuten 42 kilometroko pasatxoko proba, eta Elgoibarko korrikalaririk azkarrena Unai Narbaiza izan zen.



## SAILKAPENA

57 Unai Narbaiza	2:41:41
80 Jose Antonio Ruiz	2:44:44
460 Asier Arieta	3:00:19
493 Mikel Agullo	3:02:43
506 Alberto Garate	3:03:13
651 Javi Fernandez	3:08:25
710 Aitor Osoro	3:10:06
950 Berex Ortiz	3:16:41
1.345 Angel Eguren	3:27:31
1.372 Mikel Amutxastegi	3:27:44
1.377 Javi Uranga	3:27:44
1.561 Modesto Cid	3:33:11
1.562 Mariano Lopez	3:33:11
1.563 Elias Fernandez	3:33:11
1.601 Javier Oñederra	3:34:33
1.679 Juan Jose Gurrutxaga	3:37:16
1.686 Fernando Calvo	3:36:48
1.687 Jon Basurto	3:36:48
1.934 Mikel Gabilondo	3:48:12
2.105 Unai Egaña	3:59:27
2.203 Mikel Arriola	4:08:22

## Morkaikok antolatuta, abenduaren 14an hasiko da mendiko argazkien erakusketa Kultur Etxean

Morkaikok antolatutako mendiko argazkien lehiaketan parte hartu duten irudien erakusketa egingo dute. Abenduaren 14an jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxeko sotoan. Epaimahaikideek aukeratuko dute irabazlea, eta ikusleek ere argazkirik gustukoena aukeratuko dute. Bestalde, Morkaikoren 2010eko egutegia eskuratu daiteke kiroldegiko harreran, Astigarraga eta Iriondo kirolak dendetan eta Pitxintxun.

## Agustin Ruizek Espainiako eskrima txapelketa irabazi du eta Iñaki Lucas laugarren geratu da



Elgoibarko wingsun eskolako Agustin Ruizek irabazi du Espainiako eskrima txapelketa. Era horretan, hirugarren aldiz lortu du elgoibartar batek lehen postua. Izan ere, 2007an ere Ruizek jantzi zuen txapela, eta 2008an Iñaki Lucasek. Aurten, Iñaki Lucas laugarren postuan sailkatu da. Pello Plaza wingsun eskolako arduradunak eskerrak eman nahi dizkie bi jokalariei erakutsi duten ausardiagatik eta lortu dituzten emaitzengatik.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Aretxabaleta **2** – Haundi **1** (3. maila)  
 Elgoibar **1** – Eibartarrak **0** (Pref.)  
 Elgoibar **0** – Zumaia **3** (Ohorezko jub.)  
 Urki **0** – Elgoibar **3** (Kad. A)  
 Elgoibar **1** – Ikasberri **0** (Kad. B.)  
 Elgoibar **2** – Ilintxa **2** (Ohorezko inf.)  
 Eibar **2** – Elgoibar **2** (Aleb.)  
 Elgoibar **1** – Eibar **2** (Nesk.)

### PILOTA

#### Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak **22** – Bergara **16** (1. nag.)  
 Antiguoko **22** – Lagunak **9** (2. nag.)  
 Añorga **22** – Lagunak **6** (2. kad.)  
**Pala**  
 Lagunak **24** – Mundarro **25** (Nag.)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. **7** – Lakuntza **5**

### ESKUBALOIA

Tecnifuelle Elg. **24** – Kukullaga **18** (Sen. nesk.)  
 Bera Bera **26** – Grupo Eibar Elg. **28** (Jub. nesk.)  
 Bera Bera **20** – IMH Elg. **38** (Kad. nesk.)  
 Izarraitz **30** – Alkorta Elg. **41** (Sen. mut.)  
 Bergara **20** – Beristain Elg. **29** (Jub. mut.)  
 Leizaran **24** – Lauko Elg. **21** (Kad. nesk.)  
 Pneumax Elg. **27** – Arrate **40** (Kad. mut.)  
 Ikus Elg. **44** – Aloñamendi C **2** (Inf. nesk.)  
 Aterpe Elg. **15** – Zarautz A **17** (Inf.nesk.)  
 Astigarraga Elg. **14** – Arrate **15** (Inf. nesk.)  
 Bankoa **27** – Zarautz **12** (Inf. mut.)  
 Amenabar **30** – Txarriduna Elg. **17** (Inf.nesk.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 5

11:00 Elgoibar – Arizmendi (Kad.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Barbakua, 4

20:15 Grupo Eibar Elg. – Kukullaga (Jub. nesk.)

#### Zapatua, 5

17:00 Pneumax Elg. – Euskalduna (Kad.mut.)

#### Martitzena, 8

11:00 Pneumax Elg. – Urola (Kad.mut.)

residencial  
**GÉMINIS**

230.000 €tik aurrera  
garajea eta trastelekua barne



- Etxebizitza BERRIAK
- 2 eta 3 logela
- Horma-armairuak

- Guztiz hornitutako sukaldea
- BISITATU EREDU-ETXEBIZITZA



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

**ELGOIBAR**

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea interna edo externa lan egiteko prest nagusiak zaintzen.

☎ 628 014 327

• Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest asteburuetan eta jai egunetan. Klinika laguntzaile titulua daukat.

☎ 943 748 209

• Nagusiak zaindu edo etxeak garbitzeko prest.

☎ 943 743 251

• Neska gaztea garbiketa lanak eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 663 786 976

• Emakumea etxeko lanak egiteko prest edo pertsona nagusiak zaintzeko prest, psikologia ezagutzarekin.

☎ 685 761 979

• Emakumea lan bila, pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten.

☎ 686 578 228

• Emakumeak lana egin nahi du, zaharrak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketarako egiten.

☎ 685 761 979

• Gizona lanerako prest, igeltsero, elektrizista, pintore edo beste edozer lanerako prest.

☎ 606 612 834

• Neska etxeko lanak eta garbiketarako egiteko prest.

☎ 654 837 227

• Emakumea edozein lan egiteko prest.

☎ 636 517 025

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest edo gaixoak zaintzeko. Esperientziaduna.

☎ 626 329 979

• Neska gaztea ile-apaintzaile lanerako prest. Tituladuna eta esperientziaduna.

☎ 650 280 670

• Emakumea edozein lan egiteko prest. Externa edo orduka. ☎ 646 235 195

• Emakumea interna edo orduka lan egiteko prest.

☎ 662 247 584

• Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldeaz. ☎ 943 743 251

### ESKAITZA

• Sukaldaria behar da. Esperientziaduna.

☎ 943 743 196

• Irakaslea behar da Elgoibarko akademia baterako, hizkuntzetan eta eskola lanetan laguntzeko.

centrobart@gmail.com

• Udalak Berdintasun teknikaria behar du.

☎ 943 741 050

## ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

### ALOKAIRUA

• Psikologo lanerako hornitutako bulego bat alokagai. Astean hiru egunetan. Prezioa adosteko.

☎ 649 613 134

• 100 metro koadroko lokala alokatzen da. Autokarabana bat aparkatzeko egokia izan daiteke.

☎ 605 772 880

• Mendaron, Azpilgoetan etxebizitza salgai edo alokairuan.

☎ 685 772 494

• Pisu osatzeko pertsona bat behar da.

☎ 610 458 552

• San Frantziskon etxe polit bat alokatzen da, erosteko aukerarekin. Sukaldea, sala eta logela bat. Ganbara. Atzariak berriak ditu. Arratsaldean deitu.

☎ 660 042 159

## MOTORRAK ETA GARAJEAK

• Garajea alokatzen da San Roke 5ean. Aterpe tabernaren azpian.

☎ 943 741 837

## BESTELAKOAK

• Arratoi-bxakurrak oparitzen ditugu: 2 jai berri (arrak) eta bi hilabeteko beste bat (emea).

☎ 943 743 242

• ABENDUAREN 1 MARTITZENEAN BETAURREKO GRADUATUAK AURKITU GENTUEN KARAKATE AZPIAN.

☎ 943 741 664

• Gabonetarako opari ezin hobea. Play Station 3. 40 GB. Bi joko eta bi mando. 200 euro. Ondo zaindua, ia erabili gabea.

☎ 659 546 662

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

## MODULOAK

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**





• Zorionak, **Uxue**, asteazkenean 5 urte egingo dituzulako. Saioa, Ion eta Nahiaen partez.




• Zorionak, **Julen**, gaur 8 urte egin dituzulako. Muxu bat etxeko guztien partez.



• Bete ditu 2 urte gure etxeko pirata txikiak. Zorionak, **Manex!** Asko maite zaitugu. Aitaxo eta amaxo.



• Zorionak, **Nahial** Hilaren 6an 9! Beste horrenbeste egiten dituzunean, Maite-ren autoa zuzetza! Aitxitxa, amama, Maite eta tio.



• Zorionak, **Jakes**, abenduaren 9an 9 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat, txapeldun!



• Zorionak, **panpifia**, zure 3. urtebetetzean. Aitaxo, amatxo, Rocio eta Albaren partez.



• Zorionak, **Haritz**, atzo 3 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.




• Zorionak, **Iker**, urtebete egin duzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Aiora**, 10 urte egin dituzulako. Muxu pila bat etxekoekin partez.



• Zorionak, **Ibai**, atzo 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoekin partez.



• Zorionak, **Jon**, asteazkenean 10 urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoekin partez.



• Zorionak, **Nerea**, abenduaren 10ean 8 urte egingo dituzulako. Egun zoriontsua pasa! Etxeko guztien partez.



• Zorionak **Nora eta Koldo**, zuen urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoekin, eta bereziki, Ibonen partez.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

# ATXUTXIAMAIIKA NEGULEKUAK 2009

**Gabonetan ere Atxutxikin...**

**...TXUPI pasatzeko eskaintza!!**

Izan amatea: Abenduaren 15a baino lehen Elgoibarko Izarlan (Ubitarte, 4)  
Informazio gehiago: 943 741 626 (Anara eta Idola)

**HH eta LH 1-2 (2-8 urte bitartekoentzat)**

- Goizez: 9:30etik 13:00etara.
- Abenduak 21 eta 22 udai ekpamenduetan
- Abenduak 23, 28, 29, 30 eta 31
- Urtamalak 4 eta 5 Herri Eskolan

Goiz pasatzeagatik: tallarrak, mozorroak, jolasak, abestiak...

**LH 3-6 (8-12 urte bitartekoentzat)**  
**GABONETAKO IRTEERAK**

- Abenduak 28, astelehena
  - PASAIAKO ITSAS-GELARA EGUN OSOKO IRTEERA
- Abenduak 30, asteazkena
  - BILBOKO PIN-ERA EGUN OSOKO IRTEERA
- Urtamalak 4, astelehena
  - ASKARI HANDIA, ZINEMA ETA ARGAZKI EMANALDIA ARRATSALDEZ

Izazteko ordutegia: Egun osoko izarlan, abenduaz-egingo izarlan.  
Onduz: 10:00etan Izarlan / 15:30etan Izarlan

Elgoibarko Izarlan, Babeler, Elgoibarko Izarlan, Babeler

**OKINDEGIA**

6 domeka **BOLINTXO**  
8 martitzena **EIZAGIRRE**

**FARMAZIAK**

- 24 ORDUZ**
- 4 Etxeberria (*Santa Ana*)
  - 5 Fernandez  
Goizez, Etxeberria (*Erros.*)
  - 6 Fernandez
  - 7 Yudego
  - 8 Yudego
  - 9 Etxeberria (*Errosario*)
  - 10 Ibañez
  - 11 Garitaonaindia-Bidasolo

**Ibañez**  
Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

**Fernandez**  
Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

**Zabaleta**  
Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)  
atarian



**4 zapatua**

**Azoka Mendaron**  
**9:00** Kontzezio Azoka  
Mendaroko Kontzezio azoka izango da. Goizean goizetik baserriko produktuak dastatu eta erosteko aukera izango da. Herriko Enparantzan.

**10 eguena**

**Kirola**  
**12:30** Xake txapelketa  
Nazioarteko Xake Txapelketa hasiko da. Hilaren 17ra arte jokatuko dira partidak pleno aretoan.

**11 barixakua**

**Antzerkia**  
**22:15** 'Ate-joka'  
Txalo produkzioak taldeak Ate joka antzezlanaren taularatuko du, Herriko Antzokian.

**12 zapatua**

**Kirola**  
**11:00** Xake txapelketa  
Eskola kiroleko xake txapelketa jokatuko dute, Pleno Aretoan.

**Lehiaketa**  
**11:00** Jaiotzen lehiaketa  
14 urtetik beherakoek jaiotzen lehiaketa egingo dute. Parrokiako arkupeetan egongo dira ikusgai.

**14 astelehena**

**Erakusketa**  
**19:00** Mendiko argazkiak  
Morcaikok antolatuta, mendiko argazkien erakusketa izango da, Kultur Etxeko sotoan.

**Arte tailerra**  
**16:00** Zelan irakurri koadro bat  
Haizeak antolatuta, Boticcilliren *La primavera* koadroa aztertuko dute. Kultur Etxean.

**Ipuin kontaketa**  
**17:00 eta 17:30** Miriam Mendoza ipuin kontalaria  
Kutxaren Gizarte Ekintzak antolatuta, Udal Liburutegian.

**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 4**  
Lagun ezkutua 17:00

**ZAPATUA 5**  
Ibxitia

**DOMEKA 6**  
Ibxitia

**MARTITZENA 8**  
Ibxitia

**EGUAZTENA 9**  
Eskulanak

**EGUENA 10**  
Gabonetako apaingarriak 17:00

**LUDETEKAKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 4**  
Jolas librea 17:00

**ASTELEHENA 7**  
Ibxitia

**MARTITZENA 8**  
Ibxitia

**EGUAZTENA 9**  
Marrakzi txokoa 17:30

**EGUENA 10**  
Talde jolasak 17:30

**«The box»**  
4, barixakua: 22:15  
5, zapatua: 19:00/22:15

Estatu Batuak, 2009. Zuzendaria: Richard Kelly. Aktoreak: Cameron Diaz, James Marsden, Frank Langella. Iraupena: 115 minutu. 1976. urtea. Norma Lewis institutuko

irakaslea da, eta Arthur senarra, NAsako ingeniaria. Egun batean, aurpegi desitxuratu duen gizon bat azalduko da, eta Normari proposamen harrigarri bat egingo dio.





## 15 martitzena

### Literatura tailerra

18:00 Liburu-azterketa

Haizeak antolatuta, *Amistades peligrosas* liburuaren azterketa egingo dute. Udal Liburutegian.

## 17 eguena

### Jaialdia

19:00 Gabonak Ikastolan

DBHko ikasleek Gabonetako jaialdia egingo dute, Herriko Antzokian.

## 18 barixakua

### Erakusketa

19:00 Musika Bandaren 125.

urteurrena

Udal Musika Bandaren 125. urteurrena ospatzeko erakusketa inauguratuko dute. Kultur Etxean.

### Musika

22:15 Gospel kontzertua

*Black Heritage Choir* taldeak gospel kontzertua eskainiko du, Herriko Antzokian.



## Gure gomendioa

### 'Ate-joka'

Abenduaren 11n, Herriko Antzokian

Bikoteen arteko elkarbizitza ez da sekula erraza izan. Eta zure lagun onenarekin? Nolakoa da etxean zure laguna? Ate joka datorren laguna? Hiru lagunek antzeztutako komedia dibertigarria da *Ate-joka*. Hiru, ala lau? Datorren barixakuan, hilaren 11n, argituko da, gaueko 22:15etik aurrera.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Internet + e-administrazioa

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Kantsultatu  
Hasiera data: 2009-11-09  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Kantsultatu (943 748 828)

### Galdaragintza

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2010-01-11  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: 943 748 019

### Autodefentsa ikastaroa

Norentzat: Emakumeentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-12-19  
Non: Eibarren  
Izena emateko: Kantsultatu

### Karate ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Kantsultatu  
Hasiera data: 2010-01-12  
Non: Mendaron  
Izena emateko: 652 702 303

### Sukaldaritza

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz  
Hasiera data: 2010-05-05  
Non: Eibarren  
Izena emateko: Kantsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

### «Julie and Julia»

6, domeka: 19:00

7, domeka: 21:30

8, martitzena: 19:00

### «Short, la piedra magica»

7, domeka: 16:30

### «Man on wire»

10, eguena:

21:30:30

Erresuma Batua, 2008. Zuz.: James Marsh. Dokumentala. 90 min. 1974ko abuztuaren 7an, Phillipe Petit gazteak kable bat jarri zuen New Yorkeko bi

Dorre Bikien artean (garai hartan munduko garaienak ziren), eta ordubetez kablearen gainean ibili zen. Nola lortu zuen azaltzen du dokumental honetan.

## Erretratu zaharra



1955

Aste honetako erretratu zaharra elgoibartar batek ekarri du BARRE-Nera. 1955. urtekoa da argazkia, eta Azkoitian aterata dago, abuztuaren 15ean. Andra Mari eguna izaten da Azkoitiko jaietako egun handia. Argazkian azaltzen diren neska gazte horiek egun pasa joan ziren, eta oso ondo pasatu zuten. Gogora ditzagun zein diren:

**Ezkerretik eskumara:** Lucia Arrieta, Purita Goenaga (†), Benita Arriola (†), Conchita Arrieta eta Pilar Cabua (†).

## Gure berbak Hiztegia: adberbixoko batzuk (2)

Gatozen gaurkuan pasa dan astekuaren jarraipenarekin, Elgoibarren erabiltzen diran adberbixoko batzuekin (berba hauen ordainak euskera batuan jarri dittut, eta bai azalpenak ere, ordainekin koherentzia gorde nahixan).

- ◆ **ATZERA:** Berriz, atzera. **Berriz (Berritz)** ere bai. *Galduta eon dok, baiña atzera hasitta daok. Atzera berriz*, biak batera, ere erabiltzen da.
- ◆ **AURKI:** Laster. *Aurki, berriz, diru berri hori etorriko jaku, eta horrekin moldau bihako gera. Laste(r)* ere bai.
- ◆ **BART:** Atzo gauean. *Eztulka ibili da umia bart.*
- ◆ **BATAZ BESTE:** Batez bestekoak, promedioak ateratzeko erabiltzen da. *Bataz beste, hirurehun bat lagun jungo dittuk futbolera.*
- ◆ **BATEKOZ BESTERA:** Alderantziz. *Batekoz bestera erten jakuz gauzak, eta ointxe larri!*
- ◆ **BATEN:** Behin. *Donostiara baten eo bitxan jun bagiñan, artian... nahikua! Behiñ* ere bai.
- ◆ **BEHIÑ:** 1. Behin. **Baten** ere bai. 2. lok. Denborazko perpausetan batez ere, sarrera-lokailu gisa ere erabiltzen da. *Behin gauzak okertzen hasten dianian, alperrik izaten da dana.*
- ◆ **BEHIÑ EDO BEHIÑ:** Noizean behin. *Debara behiñ ero behiñ jun izan naiz kañaberiakin.* Baita **noiz edo noiz** eta **takian-takian** ere.
- ◆ **BEHINGUAGATIK:** Behingoagatik. *Behinguagatik barkatu eingo jauat, baiña gehixago eztaixala holakorik eiiñ, e!*
- ◆ **BELA(XE):** Berehala. Testuinguru adierazgarrietan sarritan. *Hori ezta bela apurtuko. / Hain gaizki tratatzen badok, bela etorriko jatzu berriz! Handik Urkare(g)l belaxe dao. Belakuan:* Berehalakoan. Ezezk perpausetan maiz, testuinguru adierazgarrietan. *Ezta belakuan etorri!*

setan maiz, testuinguru adierazgarrietan. *Ezta belakuan etorri!*

- ◆ **BERANDUAN:** Berandu. *Baiña hori... beranduan izan zan hori. Zenbat urte dia, ba, oindiokan!* **Berandu** da arruntagoa.
- ◆ **BERORIKA:** Berori tratamendua erabiliz jardun. Garai batean erabiltzen zen, abadeei, medikuari eta agintariei zuzentzeko. Besteak **Zuka** eta **Hika** dira.
- ◆ **BIHARBADA:** Beharbada. *Ni zuekin hasiko nitzuan, biharbada ba... hamalau urtekin ero. / Ezautzen naban hau, e! Ordurako biharbada bai, ezautuko naban. I(g)ual* eta **Akaso** ere erabiltzen dira.
- ◆ **BIRRITTAN:** Birritan, bi aldiz.
- ◆ **BIXAR-ETZI:** Etorkizun dagoenaren berri emateko erabiltzen da. **Bixar edo etzi** ere bai. *Danobatian zabillen anaixa, da "hi, hobe daukak hara etortzia, han tallara ondo jiek, eta bixar ero etzi han benefiziak eta, pixkat zeoze eman eitxe juek". / Trenbidiari metro bat lagata hasi dia lanian. Baiña ez. Bixar-etzi doble bia bat edo edozer gauza pentsau leike trenbidiak. Eta hari beste hainbeste laga in biha jako.*
- ◆ **BOTA A(HA)LA:** Erruz. **Eurixa bota a(ha)la jardun:** *Ez gaituk ertengo, eurixa bota a(ha)la ari jok eta!* Ikus **Goixan-behian** ere bai. Aditz-partizioekin erabiltzen da **Ahala**. *Gu [baserritik] kalera etorri giñan danok, ez-kondu a(ha)la. Ahalian* ere bai. *Abade frankista katalan bat zan... Iguat tablia esaten, eta hola illaran danak, jarri eskua, hola dogula, eta jota eman a(ha)lian, di-da, di-da! Jota bilddurrez!*

Jesus Mari Makazaga

**GIDA KOMERTZIALA 2009-2010**

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

**943 743 704**

edo helbide honetara idatzi:

**barren.publi@elgoibarkoizarra.com**



# Eibarko El Corte Inglés

## Beste estilo bat astialdiaz gozatzeko



Kiroletan, markarik onenak, Nike, Adidas edo Boomerang, esaterako, espezializatuenekin batera: The North Face, Orbea, Trangoworld... behar duzun ekipamendu guztiarekin. Eta, gainera, muskarako espazio berezia; beste bat muskarako, beste bat zinemarako, liburu-sail handia eta azken nobedadeak informatikan, telefonian, argazkilaritzan, irudi eta soinuan... pentsa ditzakezun jostailu eta bideo-jolas guztiak.



EGO GAIN, 7. EIBAR

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 - 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA. GUREKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122

[www.elcorteingles.es](http://www.elcorteingles.es)

INTERNETEKO DENDA HANDIA

# Ate-Joka

Txalo produkzioak

abenduak 11,  
ostirala  
22:15ean

Herriko Antzokian



# BLACK HERITAGE CHOIR

Gospel taldea

abenduak 18,  
ostirala  
22:15ean

Herriko Antzokian

